

6/26

irizpena

Dekretu-proiektua,
Zeinaren bidez garatzen baita Euskadi
Eraldatuz 2030 planaren esparruan euskal
enpresa sektorea eraldatzeko INDARTUZ
finantzaketa-lerroa

Bilbo, 2026ko uztailaren 6a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 6/26

I.- AURREKARIAK

2026ko ekainaren 15ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ogasun eta Finantza Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, *“Dekretu-proiektua, zeinaren bidez garatzen baita Euskadi Eraldatuz 2030 planaren esparruan euskal enpresa sektorea eraldatzeko INDARTUZ finantzaketa-lerroa”* testuari buruzko txostena eskatzen zuen, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultagai dugun arauaren xedea da, 1. artikuluan azaltzen denez, finantzaketa-lerro bat eratzea da, bere I. eranskinean identifikatutako sektoreetan lan egiten duten eta modernizatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko proiektuak egin nahi dituzten enpresa txiki eta ertainentzat, enpresa handi hautagarrientzat, banakako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat, hura eskuratzeko baldintzak eta prozedura arautuz.

Lerro horren bidez, bidea eman nahi da bankuko finantzaketa eskuratzeko, eraldaketa energetiko, jasangarri, digital, teknologiko eta industrialeko edo hazkundeko planei lotutako inbertsio-beharrak artatu daitezen, bere II. eranskinean jasotako lehenespen-irizpideen arabera.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia emateko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

2026ko uztailaren 1ean Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran berresteko. Han gehiengoz onartu zen LAB ordezkariaren boto partikularrarekin.

II.- EDUKIA

“Dekretu-proiektua, zeinaren bidez garatzen baita Euskadi Eraldatuz 2030 planaren esparruan euskal enpresa sektorea eraldatzeko INDARTUZ finantzaketa-lerroa” delakoak honako hauek jasotzen ditu: zioen azalpena, hiru kapitulutan banatutako 15 artikulua, Xedapen Gehigarri bat, bi Azken Xedapen eta sei eranskin.

Zioen azalpenak dioenez, gaur egungo egoeraren ezaugarri nagusiak dira nazioarteko desafioak; lehiakortasunak, jasangarritasunak eta etengabe aldatzen ari den merkatu global batera egokitu beharrak dakartzan erronkak, eta egiturazko trantsizioak, hala nola energiaren eta ingurumenaren arlokoak, teknologiko-digitalak eta demografiko-sozialak, eta horrek guztiak plan eta neurri egokiak eskatzen ditu aurre hartzeko, egokitzeko eta EAEko enpresa-sarearen lidergoa bultzatzeko.

Desafioaren aurrean, Euskal Finantza Aliantza sortu da, lankidetzan publiko-pribatuko esparru bat. Eusko Jaurlaritzak eta Elkargik hartzen dute parte, EAEko beste finantza-erakunde batzuekin batera, eta guztien helburua da Euskadi Europako berrindustrializazio-prozesuan erreferentzia gisa kokatzen laguntzea, herrialdearen egiturazko erronkekin bat datozen finantza-tresnak diseinatzeko eta aktibatuz.

Aliantzaren helburuekiko konpromisoa duenez, Eusko Jaurlaritzak 1.000 milioi euro bideratuko ditu Euskadi Eraldatuz 2030 planean zehaztutako finantza-tresnen bidez. EAEko enpresa-sarearen eraldaketa bizkortzeko inbertsio-plan bat da, hain zuzen ere.

Euskadi Eraldatuz 2030 ekimenaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan ezinbestekotzat jo da eraldaketarako finantza-laguntzaren aparteko finantza-lerro bat egituratzea, Indartuz lerroa, enpresen

hazkundera bizkortzen lagunduko duten inbertsio estrategikoak bultzatzeko xedez, birdimentsionatzearen, nazioartekotzearen, digitalizazioaren eta deskarbonizazioaren bidez, horiek baitira EAEko enpresa-sarearen ekoizpen-eredua bultzatzeko ardatzak.

Mailegu-lerro da bat, zeinaren zenbatekoa deialdi bakoitzari dagokion aginduan zehaztuko den, Elkargi Elkar Bermatzeko Sozietateak (EBS) abalatuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak birfidantzatuta. Era berean, hitzarmenak sinatuko dira honen babesean formalizatzen diren mailegu-eragiketak finantzatzeko interesa duten finantza-erakunde guztiekin.

Helburu horrekin, arau honek finantzaketa-lerroan sartzeko baldintzak arautzen ditu, bai eta enpresa eta pertsona onuradunak, baliabideen erabilgarritasuna eta maileguetarako baldintzak ere. Era berean, jasotzen du zein izango den prozedura elkar bermatzeko sozietate laguntzailean eta finantza-erakunde laguntzaileetan finantzaketa-eskabideak izapidetzeko.

Horretarako, dekretu-proiektuak honako artikulua hauek jasotzen ditu:

I. KAP. XEDAPEN OROKORRAK

1. art. Xedea
2. art. Enpresa eta pertsona onuradunak
3. art. Finantzatu daitezkeen egoerak

II. KAP. FINANTZAKETA-ERAGIKETAK

4. art. Hitzarmenak elkar bermatzeko sozietatearekin eta gainerako finantza-erakunde laguntzaileekin
5. art. Abal-eragiketen ezaugarriak
6. art. Finantzaketa-eragiketen ezaugarriak

III. KAP. PROZEDURA

7. art. Deialdia
8. art. Prozedura
9. art. Aurkeztu beharreko dokumentazioa
10. art. Eskabideak aurkeztea
11. art. Eskabideak aztertzea eta Abala Baimentzeko Agiria formalizatzea
12. art. Mailegu-eragiketak formalizatzea
13. art. Enpresa eta pertsona onuradunen erreklamazioak
14. art. Egiaztatzea eta ikuskatzea
15. art. Laguntzen bateragarritasuna

ERANZKINAK

I. Onartutako EJSN kodeen zerrenda

II. FINANTZATU DAITEZKEEN ERALDAKETEN TIPOLOGIA

III. EAEko ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ELKARGI EBS-REN ARTEKO HITZARMEN EREDUA, ZEINAREN BIDEZ GARATZEN BAITA INDARTUZ FINANTZAKETA-LERROA

IV. HITZARMEN EREDUA, EUSKAL EAEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ...BANKUAREN ARTEKOA, INDARTUZ FINANTZAKETA-LERROA GARATZEN DUENA

V. FORMULARIOAK

VI. ABALA BAIMENTZEKO AGIRIA

III.- GOGOETA OROKORRAK

i) Balorazio orokorra

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez garatzen baita Euskadi Eraldatuz 2030 planaren esparruan euskal enpresa sektorea eraldatzeko INDARTUZ finantzaketa-lerroa, aurkeztu zaigu irizpena emateko. Dekretu-proiektu hau enpresen modernizazioarekin eta lehiakortasunaren hobekuntzarekin lotutako inbertsio-proiektuek finantzaketa eskuratzeko erraztasunak emateko tresna da, Euskadi Eraldatuz 2030 Planak bultzatutako eraldaketa ekonomikoko helburuen ildotik. Dirulaguntza zuzenetan soilik oinarritutako mekanismoez gain beste finantza-tresna batzuetara jotzea, kasu honetan gertatzen den bezala, gero eta gehiago erabiltzen da enpresa-laguntzako politika publikoetan, baliabide publikoen efektu biderkatzaile handiagoa bideratzen duelako eta finantzaketa pribatuaren mobilizazioa sustatzen duelako. Hori dela eta, kontsultatzen zaigun araua **era positiboan baloratzen dugu**.

Nolanahi ere, politika publikoa den aldetik, Indartuz finantzaketa-lerroak bateragarria izan behar du lan-eskubideen bermearekin, enpleguaren egonkortasuna barne, gizarte- eta lan-itzulerako baremoekin eta ekonomiaren kontrol demokratikoarekin.

Beste alde batetik, positibotzat jotzen dugu administrazioaren, Elkargiren eta finantza-erakunde laguntzaileen arteko lankidetzak, bai eta abalaren komisioaren hobera ere, enpresa onuradunek finantzaketa eskuratzeko baldintzak hobetzen laguntzen baitu.

Azkenik, finantza daitezkeen jarduketaren hedadurari dagokionez, aldeko balorazioa egiten da, jarduketa horiek energia, teknologia, industria, jasangarritasun eta enpresa-hazkundeko eraldaketa-proiektuei estaldura emateko aukera ematen dutelako, tresna produkzio-ehunaren beharretara egokitzen lagunduz.

Hala ere jarraian dekretu-proiektuan hautemandako **zenbait gai eta hobekuntza-esparru** aipatzen ditugu:

ii) Eskatzen diren betekizunak

Beharrezkotzat jotzen dugu finantzaketa-lerroa eskuratzeko eskatzen diren baldintza ekonomiko-finantzario batzuen egokitasunari buruz hausnartzea. Bereziki, balantzearen % 10aren baliokide diren funts propioak mantentzeko exigentzia eta ondoz ondoko hiru ekitalditan galerak izan dituzten

enpresak baztertzea (**2.1.a) art.**); betekizun hauek intentsitate bereziko inbertsio-prozesuak edo enpresa-eraldaketako faseak igaro arren ekonomikoki bideragarriak diren eta lehiakortasuna hobetzeko gaitasuna duten proiektuak aurkezten dituzten enpresen sarbidea muga dezakete.

Illo horretatik, inguruabar horiek kasuz kasu haztatzea ahalbidetuko duten mekanismoak sartzea baloratu beharko litzateke, hain zuzen ere eskabideak ebaluatzerakoan behar bezala egiaztatuta dauden bideragarritasun-planak, birkapitalizazio-prozesu berriak edo proiektuaren etorkizuneko kaudimena agerian uzten duten beste inguruabar objektibo batzuk kontuan hartu ahal izateko, edozein kasutan ere diskrezionalitatea saihestuko duten eta Indartuz erreskate-funts moduko bat bihurtuko ez duten arau argiak bermatuz.

iii) Eraldaketa finantzagarriak

Dekretu-proiektuaren II. eranskinean arauan erregulatzen diren finantza-tresnez balia daitezkeen enpresa-jardueren eraldaketak zerrendatzen dira. Finantza daitezkeen ekimen horiei dagokienez hainbat gai aipatu nahi ditugu:

1. Testu osoan nazioartekotzea dago jasota, eta berariaz II. eranskinean: *"enpresak kanpo-merkatuetan duen presentzia zabaltzeko eta sendotzeko prozesu baten bidez nazioartekotzea"*.

Gure ustez nazioartekotze hau gure lurraldean inbertitu nahi duten EAetik kanpoko enpresekin lankidetzan jarduteko terminoetan ere bultzatu beharko litzateke. Horrela, nazioartekotzearen noranzko biko enpleguaz gain, ikaskuntzatik eta balizko *spillover* efektuetatik eratorritako kanpo-efektu positiboak lor litezke.

2. Finantza daitezkeen eraldaketen artean *"ekoizpen- edo birlokalizazio-industrialeko lerro berrien ezarpena"* jasotzen da. Lehenengo eta behin, gure iritziz "birlokalizazio" terminoak zer esan nahi duen argitu beharko litzateke. Era positiboan baloratzen diren nazioartekotzeko ekimenei ematen zaien laguntza alde batera utzi gabe, gure ustez tresna horrek ez luke inola ere bideratu behar euskal enpresak gure lurraldetik kanpo birkokatzea.
3. Dekretuak eraldaketa teknologiko-digitaleko ekimenak finantzatzea sustatzen du. Batzorde honen ustez horrelako proiektuen finantzaketan trantsizio teknologikoko irizpide bidezkoak sartu beharko lirateke.

iv) Gehieneko interes-tasak

6.1 artikulua, finantzaketa-eragiketen ezaugarrien artean, ezartzen du gehieneko interes-tasa honako hau izango dela: *"sei hilabeterako euriborra gehi xxxko gehieneko diferentziala"*. Ondorio horietarako, Euribor gisa ulertuko da Reuter-en EURIBOR= pantailaren (Act/360) oinarria edo aurrekoa desagertuz gero informazio bera ematen duen beste pantaila baten bidez lortutako bankuen arteko interes-tasa sei hilabeterako gordailuetarako, eragiketaren dataren edo berrikuspen-dataren aurreko bigarren egun baliodunari dagokiona ".

Dekretu-proiektuan jasotzen den gehieneko diferentzialaren zehaztugabetasuna izapidetze-memorian justifikatzen da eta bertan azaltzen da ezen, arauaren administrazio-izapidetzearen epe luzearen ondorioz, egokiagotzat jotzen dela datua araua indarrean sartzetik gertuagoko datan parte hartuko duten finantza-erakunde mailegu-emaileekin negoziatzea.

Argudio horrekin bat bagatoz ere, uste dugu, nolanahi ere eta izapidetze-memorian jasotako erreferentziak alde batera utzita, aurkeztu zaigun dekretu-proiektuan finantzaketa-eragiketen gehieneko tasa ezartzeko orduan eskatu daitekeela gehiago zehaztu behar direla kontuan hartu beharko diren irizpideak.

v) Beste gai batzuk

- Komenigarria izan liteke kudeaketa-operadoreek finantzaketa-lerroak emateaz eta izapidetzeaz gain, eskaera egiteko unean berariazko aholkularitza ematea. Horrela, eskaeren eraginkortasuna handituko litzateke eta, ondorioz, baita horiek gauzatzearena ere. Finantzatutako proiektuen jarraipena eta kontrola ere erraztuko luke.
- Deigarria da arau honetan Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planarekiko (ZTBP 2030) erreferentzia edota loturarik ez egotea. Hori lehentasunezko finantzaketa-ekintzekin lotzeak, kasuren batean behintzat, eragin sinergikoak eragin litzake lehiakortasunaren mesedetan. Gainera gai hau areagotu egiten da fokua enpresa-dimentsio txikietan ezartzen bada.
- Egokia dirudi finantza-baliabideen kanalak (tresnak) ezartzea oro har lehiakortasunarekin eta, bereziki, trantsizio energetikoarekin, teknologiko-digitalarekin eta demografikoarekin zerikusia duten ekimenak sustatzeko, enpresaren edo negozioen dimentsioetara bideratuak eta horren inguruan beharrak izan ditzaketenak

Hala ere, trantsizio demografikoa dekretu-proiektuaren sarreran eta erantsitako hitzarmenetan aipatzen da, baina Indartuz finantzaketa-lerroak, berez, ez du berariaz trantsizio hori aurreikusten finantza daitezkeen inbertsio-tipologien artean. Azkenean, programa aipatzeak bakarrik programaren kontzeptu- eta justifikazio-esparru bat sortzeko balio badu, agian zuzenagoa izango litzateke kentzea, nahasmena eragin baitezake.

IV.- ONDORIOA

CES, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz egokia da *“Dekretu-proiektua, zeinaren bidez garatzen baita Euskadi Eraldatuz 2030 planaren esparruan euskal enpresa sektorea eraldatzeko INDARTUZ finantzaketa-lerroa”* izapidetzea, kontsulta-organo honek testua aldatzeko egin dituen gogoetekin

Bilbon, 2026ko uztailaren 6an

ERANSKINA

LAB SINDIKATUKO ORDEZKARIAREN BOTO PARTIKULARRA

EGABeko osoko bilkurak bilera egin du 2026ko uztailaren 6an, eta bertan Euskadi Eraldatuz 2030 planaren esparruan euskal enpresa sektorea eraldatzeko INDARTUZ finantzaketa-lerroari buruzko irizpena onetsi da, LAB Sindikatuak aurkako botoa eman duelarik. Bilera horren ondoren, erakunde honek honako hau adierazi nahi du:

BOTO PARTIKULARRA

Egindako irizpenaren aurka gaudela adierazi nahi dugu, irizpenak egiten dituen zenbait ekarpenekin bat egiten dugun arren, honako arrazoi hauek direla eta:

1. Finantza-lerroa honek erakusten du banku publiko baten hutsunea.

Kutxabank sortu aurretik Euskal Herrian zeuden kutxa ezberdinen funtzioetako bat zen enpresentzako finantzaketa ziurtatzea. Egun, Kutxabankek banku pribatu bat bezala funtzionatzen du, onura publikoaren aurrean irabazien handitzea lehenesten duelako. Horren ondorioz, edozein proiektu ekonomikoen finantzaketa asko zaildu da eta Administrazioa izan behar da bitartekoak eskaini behar dituen.

Hutsune horren adierazgarri da, halaber, dekretuak xedapen gehigarri bakarrean Finantzen Euskal Institutua kreditu-lerroaren finantzatzaile posibleen artean sartzea. Errealitatean, bere papera bazterrekoa izango da, batez ere banku pribatuek onurak jasotzeko diseinatuta baitago dekretua.

Finantza-lerro hau politika neoliberalen jarraipen bat da. Hau ez da “lankidetzatza publiko-pribatuko esparru bat”, irabaziak kapitalak eskuratuko ditu eta galerak badaude guztion artean ordainduko ditugu. **Diru publikoa banku pribatuen errentagarritasuna ziurtatzeko bideratzen da eta ez dago itzulpen soziala bermatzen duen baldintzarik.**

2. 1. artikulua. – Xedea.

Proposamenak dio: “bidea eman nahi da bankuko finantzaketa eskuratzeko, eraldaketa energetiko, jasangarri, digital, teknologiko eta industrialeko edo hazkundeko planei lotutako inbertsio-beharrak artatu daitezen”.

LABen iritziz ez da nahikoa bakarrik helburuak zehaztea. Izan ere, inbertsio-beharrak artatzeko izan daitezkeen helburuak zehazten diren bezala, helburu hauen bidean argi zehaztu behar da aurkeztu diren planak ezin dutela ondorio moduan Euskal Herrian enplegu galera sortu. Diru publikoarekin ezin da finantzatu enplegu suntsiketa, ezta prekarizazioa ere.

Era berean, diru publikoarekin finantzatzutako eraldaketek ez dute soilik enpresen lehiakortasuna hobetu behar; jendarte osoaren ongizatea, diskriminazioen aurkako borroka eta lan-baldintzen

hobekuntza ere bermatu behar dituzte. Funts publikoek ezin dituzte egiturazko desberdintasunak erreproduzitu edo areagotu.

Horregatik, II. eranskinak jasotzen dituen eraldaketen artean ez litzateke egon behar "birlokalizazio industrial", baldin eta ez bada Euskal Herriko beste lurralde batera egiten. Eta hurrengo puntua ere "Enpresak kanpoko merkatuetan duen presentzia zabaltzeko eta sendotzeko prozesu baten bidez nazioartekotzea" ez litzateke azaldu behar.

Bi kasuetan, eraldaketa horiek jarduera jakin batzuk deslokalizatzeko eta enplegua galtzeko bide bat izan daitezkeelako. Gainera, enpresak nazioartekotzeko beste pizgarri mota batzuk ere badituzte.

3. 2. artikulua.- Enpresa eta pertsona onuradunak.

Dekretuaren zirriborroan finantzaketa lerro hau eskuratzeko planteatzen diren baldintzak ez dira nahikoak.

Alde batetik, enpresek azken hiru urteetan galerarik izan ez izana eskatzen da. Beraz, proiektu finkatuak izan behar dira. Kasu horretan, egokia litzateke langileen kontratu gehienak finkoak izatea eskatzea (% 80, adibidez).

Bestalde, enpresek plan ezberdinak eginak izan behar dituzte, edo finantzaketa-lerroa ematen bazaie, plan guztiak aurrera ateratzeko konpromisoa.

1. Berdintasun plana, soldata arrakalari aurre egiteko plana barne; LGTBI+ pertsonen berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko plana; eta indarkeria matxistari aurre egiteko plana.
2. Diskriminazio arrazistaren aurkako protokoloak edo neurriak, baita kontratazioan ere.
3. Deskarbonizazio plana.
4. Hizkuntza normalizazio plana.
5. Gazte berritzea. Kontrato erreleboa.
6. Prebentzio plana. Koefiziente murriztatzaileak.

Beraz, programaren balorazioan (14. artikuluan), inbertsioak egiteaz gain, berdintasun-plana, LGTBI+ pertsonen berdintasunerako plana, diskriminazio arrazisten aurkako protokoloak, deskarbonizaziokoa eta hizkuntza-normalizaziokoa bete direla ere jaso behar da. Era berean, enpresek egiaztatu beharko dute ez dela enplegurik suntsitu eta ez dela behin-behineko kontratuen pisua handitu.

4. 14. artikulua Penalizazio katalogoa osatu.

Aurreko puntuan adierazitako betebeharrei dagokienez, komenigarria litzateke 14. artikuluan beste atal bat gehitzea, honako hau jasotzeko: enpresak berdintasun-planak, LGTBI+ pertsonen berdintasunerako plana, diskriminazio arrazisten aurkako protokoloak, diskriminazio arrazistaren aurkako neurriak, deskarbonizazio-planak eta hizkuntza-normalizazioko plana betetzen ez baditu, jasotako finantziazio erdia itzuli beharko du, bai eta dagozkion legezko interesak ere. Finantzaketaren indarraldian, enpresa ERTE batean sartzen bada, edo proiektua amaitzen denean, enpresak behin-behineko kontratuen proportzioa handitu badu edo enplegua suntsitu badu, jasotako finantziazio itzuli beharko du, bai eta dagozkion legezko interesak ere.

Era berean, dirulaguntza edo finantzaketa publikoa jasoko duten enpresek ezin izango dute epai irmorik izan sexu-diskriminazioagatik, jazarpen matxistagatik, arrazakeriagatik edo lan-eskubideen urraketa larriagatik azken urteetan.

5. Interes-tasetarako erreferentzia.

Arauek ez luke erabili behar interes-tasak zehazteko Euriborra. Erreferentzia pribatu bat da (bankuen elkarte batek kalkulatu du) eta alde horretatik, ez da oso gardena, gainera. Gogoan izan behar da Libor indizea desagertu egin zela eta nazioarteko hainbat bankuk isuna jaso zutela mende hasieran erreferentzia hori manipulatuagatik. Era berean, Europako ikerketek agerian utzi zuten zenbait bankuk Euriborra ere manipulatu zutela. Hori dela eta, Europako Banku Zentralak erreferentzia berri bat ezarri zuen €STR indizean. Indize hori Europako Banku Zentralak administratzen eta kalkulatu du, Eurosistemako moneta-merkatuaren txosten estatistikoetan oinarrituta. Beraz, berme gehigarri bat eskaintzen du. Beste erreferentzia bat EBZk finkatzen duen kreditu-eraztasun marjinala da. Horietako bat edo beste erabiltzea gardentasun gehiago emango lioke proiektuari.

Nolanahi ere, ez da oso gardena ere zirriborroan ez sartzea bankuek (xxx?) maileguei aplikatuko dieten diferentziala. Bankuek lortzen dituzten mozkin handiak kontuan hartuta, finantzatuko diren eraldaketek produkzio-sarerako duten garrantzia kontuan hartuta, eta bankuentzako arrisku txikia kontuan hartuta, mailegu guztiak Administrazio publikoak abalatuta baitaude, gehieneko diferentziala % 0,25ekoa izatea proposatzen du LABek.

6. Armagintza industriaren hedapenari ez.

Industria berrindartzeko aukera estrategiko gisa armagintza sustatzen ari da, opakotasun handiz eta atzeko atetik. Sektore baten flotagailuak ezin du industria militarra izan. **Ezin da negoziarik egin genozidioarekin; ezin da negoziarik egin gerrekin.** Jarduna industria zibilera bideratu duten enpresak industria militarrenazko trantsizioa egiten ari dira. Funts publikoak industriaren eraldaketa ekosozialerako baliatu litezke, eta, horrek, planifikazioa, langileen parte hartzea eta jabetza publikoa bermatzeaz gain, estrategikoak izango diren sektoreetan enplegua sortzea eragingo luke. **Sozialki beharrezkoa eta ekologikoki jasangarria den industriari bai.**

Aurrekoagatik guztiagatik, LAB Sindikatuak kontrako bozka ematen dio Euskadi Eraldatuz 2030 planaren esparruan euskal enpresa sektorea eraldatzeko INDARTUZ finantzaketa-lerroari idatzi honen zehar emandako arrazoiengatik. LABentzat aurkeztu zaigun INDARTUZ finantzaketa-lerroak ez du trantsizio ekosoziala, feminista eta antiarrazista bat egiteko oinarri nahikorik ezartzen, beraz, ez gatoz bat irizpenean jasotzen den azken ondorio orokorarekin.

Euskal Herrian, 2026ko uztailaren 6an